

PROBA ESPEZIFIKOA

2010eko PROBA

**ENPRESAREN
EKONOMIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete.

Azterketaren egitura eta parte bakoitzaren balorazioa:

- **2 galdera teoriko; guztira, 3 puntuko balioa.** Galdera bakoitzak, gehienez, 1,5 puntuko balioa izango du.
- **2 problema; guztira, 4 puntuko balioa.** Atal honetan, ikasleak 3 problemaren artetik 2 hautatu eta ebatzi beharko ditu. Problema bakoitzak, gehienez, 2 puntuko balioa izango du.
- **Test motako 10 galdera,** hiru erantzun aukeran baina erantzun zuzena bakarra izanik. Guztira, **3 puntuko** balioa izango dute. Erantzun egoki bakoitzari 0,3 puntu emango zaizkio; erantzun desegoki bakoitzeko 0,1 puntu kenduko dira, eta erantzun gabe utziz gero, ez da punturik kenduko. Atal honetan, dena den, azken emaitza ez da inoiz negatiboa izango.
- **Galdera teorikoetan eta problemetan atal bakoitzaren balorazioa adierazita dago, baita zuzentzeko irizpidea ere.**

GALDERA TEORIKOAK:

1. Azaldu itzazu, labur, merkatu-ekonomien hiru muga. (0,5 puntu muga egoki bakoitzeko)
2. Azaldu ezazu, labur, *biztanleria aktibo* kontzeptua, eta adierazi nola sailkatzen den biztanleria aktiboa. (0,75 puntu definizio zuzenagatik; 0,75 puntu sailkapen zuzenagatik)

PROBLEMAK:

Aukeratu itzazu hiru problema hauetatik bi.

1. Txakolina banatzen duen enpresa batek, EUSKAL TXAKOLINAK, honako eragiketa hauek egin ditu martxoan:

DATA	MUGIMENDUA
03/01	Hasierako izakinak, 1.000 ale, bakoitza 20 euroan.
03/04	350 ale saldu
03/08	480 ale saldu
03/11	500 ale erosi, bakoitza 22 euroan
03/16	300 ale saldu

Bete ezazu biltegiko fitxa, BPH (batez besteko prezio haztatua) eta FIFO metodoak erabiliz. (Galderak bi puntu balio du; errore bakoitzarengatik 0,40 puntu kenduko dira).



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2010eko MAIATZA

**ENPRESAREN
EKONOMIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2010

**ECONOMÍA DE LA
EMPRESA**

BALORAZIO-METODOA										
DATA	DESKRIBAPENA	SARRERAK			IRTEERAK			IZAKINAK		
		Kopurua	Prezioa	Balioa	Kopurua	Prezioa	Balioa	Kopurua	Prezioa	Balioa

IZAKINEN BALIOA:

KOPURUA:



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2010eko MAIATZA

**ENPRESAREN
EKONOMIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2010

**ECONOMÍA DE LA
EMPRESA**

BALORAZIO-METODOA										
DATA	DESKRIBAPENA	SARRERAK			IRTEERAK			IZAKINAK		
		Kopurua	Prezioa	Balioa	Kopurua	Prezioa	Balioa	Kopurua	Prezioa	Balioa

IZAKINEN BALIOA:

KOPURUA:



2. Fadura Institutuko Batxilergoko 2. mailako ikasleek pentsatu dute, ikasketa-bidaiarako dirua lortzearen, urtarriletik martxora, 3 hilabetez, ikastetxearen ondoko lokal batean ogitartekoak saltzea. Kostu hauek dituzte: lokalaren hileko alokairuak 600 € balio du, eta ogitarteko bakoitzaren ogiak 0,50 €, txorizoak 0,40 € eta ogitartekoak biltzeko aluminio-paperak 0,20 €. Ogitartekoa 1,5 euroan salduko dute.

Kalkula ezazu:

- a) Errentagarritasun-atalasea edo ez aurrera ez atzerako puntua. (1 puntu)
- b) 5.700 ogitarteko saltzea espero badute, merezi al du, ikasketa-bidaia ordaintzeko, ideia horri eustea? Arrazoitu ezazu erantzuna, eta adieraz ezazu zer irabazi edo galera izango lituzketen.
3. Sozietate batek saldo hauek ditu bere kontuetan (eurotan): kapital soziala, 150.000; salgaiak, 20.000; kutxa, 4.000; epe laburrerako zorrak, 8.000; altzariak, 25.000; legezko erreserbak, 30.000; eraikinak, 175.000; jabetza industrialak, 55.000; bankuetako kontu korranteak, 6.000; hornitzaileak, 12.000; bezeroak, 15.000; eta kreditu-erakundeekiko epe luzerako zorrak, 100.000.

Datu horietan oinarrituz, egin itzazu eragiketa hauek:

- a) Aurkez ezazu egoera-balantzea, ondare-masatan ordenatuta. (1 puntu)
- Pasiboko ondare-elementu bat edo ondare-masa bat aktiboan jartzeak, edo alderantziz, 0 ematen du atal honetan.
 - Ez dagokion masa batean kokatzen den ondare-elementu bakoitzeko 0,20 puntu kenduko dira.
 - Inongo ondare-masatan sartu ez den ondare-elementu bakoitzeko 0,10 puntu kenduko dira.
 - Atal honetan ezin da inola ere puntuazio negatiborik lortu.
- b) Kalkula ezazu maniobra-fondoa (laneko kapitala), eta interpreta ezazu emaitza. (0,5 puntu)



TEST MOTAKO GALDERAK

Biribil batez ingura ezazu aukera zuzena.

- Zerga bat progresiboa da, baldin eta:
 - Zerga-oinarri txikiagoa duenak gehiago ordaintzen badu.
 - Kuota zerga-oinarriarekiko alderantziz proportzionala baldin bada.
 - Zerga-tasa eta zerga-oinarria noranzko berean aldatzen badira.
- ETEak (enpresa txiki eta ertainak) sektore hauetakoak izan daitezke:
 - Lehen eta bigarren sektoreetakoak soilik.
 - Lehen eta hirugarren sektoreetakoak soilik.
 - Lehen, bigarren eta hirugarren sektoreetakoak.
- Hirugarrenen aurrean erantzukizun mugatua izatea kasu hauei dagokie:
 - Banakako enpresaburuei.
 - Sozietate kolektiboei.
 - Lan-sozietate anonimoei.
- Denboraldi batean faktore batek duen produktibitatea honela adierazten da:
 - Produktu baten fabrikazio-kostuaren eta salneurriaren arteko erlazioa.
 - Produktu baten produkzio-bolumenaren eta hura produzitzeko erabili diren faktore-unitateen arteko erlazioak.
 - Denboraldi horretan enpresa batek fabrikatutako produktu-unitateen kopuruak.
- 2008an EAEko prezioen indizea % 0,5 handitu bada eta NPG (nazio-produktu gordin) nominala % 1,7 handitu bada, horrek esan nahi du:
 - NPG erreala ez dela aldatu.
 - NPG erreala handitu egin dela.
 - NPG erreala txikitu egin dela.
- Enpresa baten merkatu-kuota honako hau da:
 - Banaketa-kanal baten bidez hartzen den eremu geografikoa.
 - Merkatu jakin batean, produktu baten salmenta guztietatik enpresaren salmentek duten zatia, proportzioa.
 - Ekitaldi batean, aurreko urteko ekitaldiarekin alderatuta salmentak zenbat handitu diren adierazten duen proportzioa.
- Zer da BEGb (gaztelaniaz, VAN)?
 - Balio eguneratu garbia zero bihurtzen duen eguneratze mota.
 - Egindako inbertsioa berreskuratzeko behar den denbora.
 - Hasierako ordainketaren eta kutzako fluxu garbi eguneratuen baturaren arteko aldea.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2010eko MAIATZA

**ENPRESAREN
EKONOMIA**

*PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS*

MAYO 2010

***ECONOMÍA DE LA
EMPRESA***

8. Balantzean...

- a) Aktiboak finantza-egitura adierazten du.
- b) Pasiboa kapital iraunkorren eta epe luzerako zorren batura da.
- c) Aktiboan epe motzerako eta luzerako inbertsioak jasotzen dira.

9. Ordainketa-etendura...

- a) Kaudimengabezia-egoera bat da, enpresaren ondarea kargatuak dituen zor guztiei aurre egiteko nahikoa ez denean gertatzen dena.
- b) Epe laburrerako finantza-desoreka bat da, enpresak, pasibo zirkulatzaila aktibo zirkulatzaila baino handiagoa izateagatik, likidezia-arazoak dituen gertatzen dena.
- c) Kontabilitate-liburuak legeak agindu bezala ez eramateagatik sortutako defizit-egoera da.

10. Ondare-masa hau da:

- a) Esanahi ekonomiko-finantzario bera duten elementuen multzoa.
- b) Enpresa batek dituen elementu guztiak.
- c) Lokal komertzial berean dauden elementu guztiak.



EBAZPENA: ENPRESAREN EKONOMIA (2010eko maiatza)

Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete.

Azterketaren egitura eta parte bakoitzaren balorazioa:

- **2 galdera teoriko; guztira, 3 puntuko balioa.** Galdera bakoitzak, gehienez, 1,5 puntuko balioa izango du.
- **2 problema; guztira, 4 puntuko balioa.** Atal honetan, ikasleak 3 problemaren artetik 2 hautatu eta ebatzi beharko ditu. Problema bakoitzak, gehienez, 2 puntuko balioa izango du.
- **Test motako 10 galdera,** hiru erantzun aukeran baina erantzun zuzena bakarria izanik. Guztira, **3 puntuko** balioa izango dute. Erantzun egoki bakoitzari 0,3 puntu emango zaizkio; erantzun desegoki bakoitzeko 0,1 puntu kenduko dira, eta erantzun gabe utziz gero ez da punturik kenduko. Atal honetan, dena den, azken emaitza ez da inoiz negatiboa izango.
- **Galdera teorikoetan eta problemetan atal bakoitzaren balorazioa adierazita dago, baita zuzentzeko irizpidea ere.**

GALDERA TEORIKOAK:

- 1. Azaldu itzazu, labor, merkatu-ekonomien hiru muga. (0,5 puntu muga egoki bakoitzeko)**

Erantzuna:

Hauetatik hiru edozein:

- Errenta ez da modu bidezkoan banatzen.
- Merkatu batzuetan lehia ez da perfektua.
- Kanpoko fenomenoak daude; esate baterako, kutsadura, merkatuak alboratu izan da.
- Ondasun publikoek distortsioa sortzen dute merkatuan.
- Jabetza komuneko ondasunak edo baliabideak agortzeko bidean dira (arrantza-tokiak).
- Publizitatea kontsumitzaileak engainatzeko erabil daiteke.



-
- Merkatu-ekonomiek ezegonkorak izateko joera dute, eta aldizkako krisiak izaten dituzte.

2. Azaldu ezazu, labur, *biztanleria aktibo* kontzeptua, eta adierazi nola sailkatzen den biztanleria aktiboa. (0,75 puntu definizio zuzenagatik; 0,75 puntu sailkapen zuzenagatik)

Erantzuna:

Biztanleria aktiboa prozesu ekonomikoan parte hartzen duten pertsonen osatzen dute, alegia ondasunen eta zerbitzuen produkzioan elkarlanean diharduten pertsonen, produzitu eta kontsumitu egiten dutenen. Pertsona horiek biztanleria aktiboaren parte izateko eduki behar duten adina aldatzen da herrialde batetik bestera, baina, oro har, 16 urtetik 65 urtera bitartekoa izan ohi da. Biztanleria aktiboa bi taldetan sailkatzen da: landunak eta langabeak. Lehenengoak lanerako adinean egon eta lanean ari direnak dira; bigarrenak dira, lan ordaindu bat egiteko eskatzen diren adina eta gaitasun fisiko edo mentala izan arren, lanik aurkitzen ez dutenak.

PROBLEMAK:

Aukeratu itzazu hiru problema hauetatik bi.

1. Txakolina banatzen duen enpresa batek, EUSKAL TXAKOLINAK, honako eragiketa hauek egin ditu martxoan:

DATA	MUGIMENDUA
03/01	Hasierako izakinak, 1.000 ale, bakoitza 20 euroan.
03/04	350 ale saldu
03/08	480 ale saldu
03/11	500 ale erosi, bakoitza 22 euroan
03/16	300 ale saldu

Bete ezazu biltegiko fitxa, BPH (batez besteko prezio haztatua) eta FIFO metodoak erabiliz. (Galderak bi puntu balio du; errore bakoitzarengatik 0,40 puntu kenduko dira)



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2010eko MAIATZA

**ENPRESAREN
EKONOMIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2010

**ECONOMÍA DE LA
EMPRESA**

BATEZ BESTEKO PREZIO HAZTATUA

DATA	DESKRIBAPENA	SARRERAK			IRTEERAK			IZAKINAK		
		Kopurua	Prezioa	Balioa	Kopurua	Prezioa	Balioa	Kopurua	Prezioa	Balioa
mar-01	Hasierako izakina							1000	20	20000
mar-04	Salmenta				350	20	7000	650	20	13000
mar-08	Salmenta				480	20	9600	170	20	3400
mar-11	Erosketa	500	22	11000				670	21,49	14400
mar-16	Salmenta				300	21,49	6447,76	370	21,49	7952,24

FIFO

DATA	DESKRIBAPENA	SARRERAK			IRTEERAK			IZAKINAK		
		Kopurua	Prezioa	Balioa	Kopurua	Prezioa	Balioa	Kopurua	Prezioa	Balioa
mar-01	Hasierako izakina							1000	20	20000
mar-04	Salmenta				350	20	7000	650	20	13000
mar-08	Salmenta				480	20	9600	170	20	3400
mar-11	Erosketa	500	22	11000				170	20	3400
								500	22	11000
mar-16	Salmenta				170	20,00	3400			
					130	22,00	2860,00	370	22,00	8140,00



2. Fadura Institutuko Batxilergoko 2. mailako ikasleek pentsatu dute, ikasketa-bidaiarako dirua lortzearen, urtariletik martxora, 3 hilabetez, ikastetxearen ondoko lokal batean ogitartekoak saltzea. Kostu hauek dituzte: lokalaren hileko alokairuak 600 € balio du, eta ogitarteko bakoitzaren ogiak 0,50 €, txorizoak 0,40 € eta ogitartekoak biltzeko aluminio-paperak 0,20 €. Ogitar-tekoa 1,5 euroan salduko dute.

Kalkula ezazu:

- a) Errentagarritasun-atalasea edo ez aurrera ez atzerako puntua. (1 puntu)

Erantzuna:

$$Q = \frac{\text{kostu finkoa}}{p - (\text{kostu aldakorra aleko})} = \frac{1.800}{1,5 - 1,1} = \frac{1.800}{0,4} = 4.500 \text{ ale}$$

- b) 5.700 ogitarteko saltzea espero badute, merezi al du, ikasketa-bidaia ordaintzeko, ideia horri eustea? Arrazoitu ezazu erantzuna, eta adieraz ezazu zer irabazi edo galera izango lituzketen.

Erantzuna:

Bai, merezi du, irabaziaz izango lituzkete, 4.500 ale salduta kostu guztiak estaliko lituzkete eta. Errentagarritasun-atalasea baino 1.200 ale gehiago salduko dituzte, eta ogitarteko bakoitzarekin 0,4 € irabaziko dute (salmenta-prezioa ken gastu aldakorrak, gastu finkoak estaliak baitaude). Irabazia 480 € izango da.

3. Sozietate batek saldo hauek ditu bere kontuetan (eurotan): kapital soziala, 150.000; salgaiak, 20.000; kutxa, 4.000; epe laburrerako zorrak, 8.000; altzariak, 25.000; legezko erreserbak, 30.000; eraikinak, 175.000; jabetza industrial, 55.000; bankuetako kontu korranteak, 6.000; hornitzaileak, 12.000; bezeroak, 15.000; eta kreditu-erakundeekiko epe luzerako zorrak, 100.000.

Datu horietan oinarrituz, egin itzazu eragiketa hauek:

- a) Aurkez ezazu egoera-balantzea, ondare-masatan ordenatuta.

- Pasiboko ondare-elementu bat edo ondare-masa bat aktiboan jartzeak, edo alderantziz, 0 ematen du atal honetan.



- Ez dagokion masa batean kokatzen den ondare-elementu bakoitzeko 0,20 puntu kenduko dira.

- Inongo ondare-masatan sartu ez den ondare-elementu bakoitzeko 0,10 puntu kenduko dira.

- Atal honetan ezin da inola ere puntuazio negatiborik lortu.

b) Kalkula ezazu maniobra-fondoa (laneko kapitala) eta interpreta ezazu emaitza.

Erantzuna:

AKTIBOIA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOIA	
Aktibo ez-arrunta	255.000	Ondare garbia	180.000
Jabetza industrialak	55.000	Kapital soziala	150.000
Eraikinak	175.000	Erreserbak	30.000
Altzariak	25.000		
Aktibo arrunta	45.000	Pasibo ez-arrunta	100.000
<u>Izakinak</u>	<u>20.000</u>	Epe luzerako zorrak	100.000
Salgaiak	20.000		
<u>Zordun komertzialak eta...</u>	<u>15.000</u>	Pasibo arrunta	20.000
Bezeroak	15.000	Epe laburrerako zorrak	8.000
<u>Erabilgarri</u>	<u>10.000</u>	Hornitzaileak	12.000
Bankuak	6.000		
Kutxa	4.000		
AKTIBOIA GUZTIRA	300.000	PASIBOIA GUZTIRA	300.000

Maniobra-fondoa (laneko kapitala) = AA – PA

MF = 45.000 – 20.000

MF = 25.000

Aktibo arrunta pasibo arrunta baino handiagoa da. Horrek esan nahi du aktibo arruntaren zati bat pasibo ez-arruntarekin eta ondare garbiarekin ari dela finantzatzen; hori da maniobra-fondoa edo laneko kapitala. Maniobra-fondoa positiboa denean, kasu honetan gertatzen den bezala, enpresak bere aktibo arruntarekin (urtebete baino lehen diru bihurtu behar duten aktiboekin) egin diezaietke aurre pasibo arruntean adierazitako zorrei (epea urtebete baino lehen amaitzen zaien zorrei). Hori dela eta, ondoriozta dezakegu enpresa horrek ez duela finantza-arazorik izango epe laburrean.



TEST MOTAKO GALDERAK

Biribil batez ingura ezazu aukera zuzena.

1. Zerga bat progresiboa da, baldin eta:
 - a) Zerga-oinarri txikiagoa duenak gehiago ordaintzen badu.
 - b) Kuota zerga-oinarriarekiko alderantziz proportzionala baldin bada.
 - c) **Zerga-tasa eta zerga-oinarria noranzko berean aldatzen badira.**

2. ETEak (enpresa txiki eta ertainak) sektore hauetakoak izan daitezke:
 - a) Lehen eta bigarren sektoreetakoak soilik.
 - b) Lehen eta hirugarren sektoreetakoak soilik.
 - c) **Lehen, bigarren eta hirugarren sektoreetakoak.**

3. Hirugarrenen aurrean erantzukizun mugatua izatea kasu hauei dagokie:
 - a) Banakako enpresaburuei.
 - b) Sozietate kolektiboei.
 - c) **Lan-sozietate anonimoei.**

4. Denboraldi batean faktore batek duen produktibitatea honela adierazten da:
 - a) Produktu baten fabrikazio-kostuaren eta salneurriaren arteko erlazioa.
 - b) **Produktu baten produkzio-bolumenaren eta hura produzitzeko erabili diren faktore-unitateen arteko erlazioak.**
 - c) Denboraldi horretan enpresa batek fabrikatutako produktu-unitateen kopuruak.

5. 2008an EAEko prezioen indizea % 0,5 handitu bada eta NPG (nazio-produktu gordin) nominala % 1,7 handitu bada, horrek esan nahi du:
 - a) NPG erreala ez dela aldatu.
 - b) **NPG erreala handitu egin dela.**
 - c) NPG erreala txikitu egin dela.

6. Enpresa baten merkatu-kuota honako hau da:
 - a) Banaketa-kanal baten bidez hartzen den eremu geografikoa.
 - b) **Merkatu jakin batean, produktu baten salmenta guztietatik enpresaren salmentek duten zatia, proportzioa.**
 - c) Ekitaldi batean, aurreko urteko ekitaldiarekin alderatuta salmentak zenbat handitu diren adierazten duen proportzioa.

7. Zer da BEGb (gaztelaniaz, VAN)?
 - a) Balio eguneratu garbia zero bihurtzen duen eguneratze mota.
 - b) Egindako inbertsioa berreskuratzeko behar den denbora.
 - c) **Hasierako ordainketaren eta kutzako fluxu garbi eguneratuen baturaren arteko aldea.**



-
8. Balantzean...
- a) Aktiboak finantza-egitura adierazten du.
 - b) Pasiboa kapital iraunkorren eta epe luzerako zorren batura da.
 - c) **Aktiboan epe motzerako eta luzerako inbertsioak jasotzen dira.**
9. Ordainketa-etendura...
- a) Kaudimengabezia-egoera bat da, enpresaren ondarea kargatuak dituen zor guztiei aurre egiteko nahikoa ez denean gertatzen dena.
 - b) **Epe laburrerako finantza-desoreka bat da, enpresak, pasibo zirkulatzaila aktibo zirkulatzaila baino handiagoa izateagatik, likidezia-arazoak dituenean gertatzen dena.**
 - c) Kontabilitate-liburuak legeak agindu bezala ez eramateagatik sortutako defizit-egoera da.
10. Ondare-masa hau da:
- a) **Esanahi ekonomiko-finantzario bera duten elementuen multzoa.**
 - b) Enpresa batek dituen elementu guztiak.
 - c) Lokal komertzial berean dauden elementu guztiak.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2010eko MAIATZA

**ENPRESAREN
EKONOMIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2010

**ECONOMÍA DE LA
EMPRESA**

PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO HARREMANA

GALDERA	EZAGUTZA-ADIERAZLEA
Galdera teorikoak	
1	1.3
2	1.8
Problemak	
1	2.12
2	2.16; 2.17; 2.15
3	3.1; 3.3; 3.5; 3.6; 3.7
Test motako galderak	
1	1.6
2	2.4
3	2.7
4	2.13
5	1.7
6	2.19
7	2.25
8	3.2
9	3.4
10	3.1